



AZALPEN-FAQak

GAUEKO OSTALARITZAKO ETA AISIALDIKO ESTABLEZIMENDUETARAKO LAGUNTZEI BURUZKO AGINDUA - 2022

1. Norentzat dira?

Euskadiko gaueko ostalaritzako eta aisialdiko establezimenduetan jardueraren titular diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare berezia osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, eta mikro-enpresa eta enpresa txiki eta ertainak, betiere jarduera hori ezarritako tipologia sartzen bada eta abenduaren [28ko 51/2021 Dekretuak](#) onartutako prebentzio-neurri espezifikoek eragindakoak izan badira, Dekretu horren indarraldia 2022ko otsailaren 13ra arte luzatuko da ([Lehendakariaren urtarrilaren 28ko 2/2022 Dekretua](#)).

2. Zer dira gaueko ostalaritzako eta aisialdiko establezimenduak?

Laguntza hauen ondorioetarako, eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko [17/2019 Dekretuaren](#) 32.2 artikuluan ezarritako ixteko ordutegiari buruzko sailkapenarekin bat etorritz, ostalaritzako eta gaueko aisialdiko establezimenduak honako sailkapen honetan jasotakoak dira:

a) **II. taldeko establezimenduak**, 01:00ean itxi behar direnak:

- Kontzertu-aretoak
- I. eta III. taldeetan ez dauden ostalaritzako establezimenduak.

b) **III. taldeko establezimenduak**, 02:30ean itxi behar direnak:

- Pubak eta taberna bereziak.

c) **IV. taldeko establezimenduak**, 04:30ean itxi behar direnak:

- Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

3. Pertsona edo entitate eskatzaileek garatutako jarduerak EJSN (Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala) edo EJZ (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) zehatz batean egon behar al du?

Bai, garatutako jarduerak diruz lagundu daitezkeen EJSNetako batean sartu beharko du, eta 2021eko abenduaren 1ean alta emanda egon baliokidetasun-taula honetan adierazitako EJZren epigrafeetako batean:



EJZ KODEA	EJZ EPIGRAFEA	EJSN-2009 KODEA	EJSN-2009 ATALA
16711	Jatetxe-zerbitzuak. Bost sardexkakoak	5610	I - Ostalaritza
16712	Jatetxe-zerbitzuak. Lau sardexkakoak	5610	
16713	Jatetxe-zerbitzuak. Hiru sardexkakoak	5610	
16714	Jatetxe-zerbitzuak. Bi sardexkakoak	5610	
16715	Jatetxe-zerbitzuak. Sardexka batekoak	5610	
16721	Kafetegi-zerbitzuak. Hiru kikarakoak	5610	
16722	Kafetegi-zerbitzuak Bi kikarakoak	5610	
16723	Kafetegi-zerbitzuak Kikara batekoak	5610	
16731	Kafeak eta tabernak, janariarekin edo gabe. Kategoria berezikoak.	5630	
16732	Kafeak eta tabernak, janariarekin edo gabe. Bestelako kafetegi eta tabernak.	5630	
14261	Sagardotegiak. Sagardoa eta frutatik eratorritako beste edari hartzitu batzuk egiten dituztenak.	1103	C - Manufaktura- industria
19691	Beste jolas- eta entretenimendu-jarduera batzuk. Dantza-aretoak eta diskotekak.	9329	R - Arte-, jolas- eta entrenimendu- jarduerak
19891	Ikuskizunarekin eta turismoarekin loturiko beste jarduera batzuk. Ikuskizun-aretoen kudeaketa.	9004	

4. Nork ezin ditu eskatu?

Kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, edo beste erakunde batzuk, baldin eta administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek kapitalean edo gobernu-organoetan gehiengoko partaidetza badute.

5. Zer baldintza bete behar ditu pertsona edo erakunde eskatzaileak?

- Egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta laguntzaren xede den establezimendua bertan egotea.
- Establezimendu motari eta egindako jarduerari buruzko ondorengo hiru baldintza hauek aldi berean betetzea: ixteko ordutegiaren arabera taldeetako bati dagokion jarduera- eta/edo irekitze-lizentzia edukitzea, diruz lagundu daitezkeen EJSNetako batean sartuta egotea eta EJZren epigrafe baliokidean alta emanda egotea 2021eko



- abenduaren 1ean (kontsultatu [3. galdera](#) diruz lagun daitezkeen EJSNak eta IAEak ikusteko).
- c) Ostalaritzako edo gaueko aisialdiko establezimendu batean jarduera baten titularra izatea, eta jarduera horiek [2. galderan](#) jasotakoak izatea.
 - d) Eskatzailea norberaren konturako langilea edo autonomia bada, Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB) alta emanda egotea 2021eko abenduaren 1ean.
 - e) Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea ([ikus 6. galdera](#)).
 - f) Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
 - g) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
 - h) Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- eta administrazio-arloko zehapenaren pean ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
 - i) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko [38/2003 Lege](#) Orokorren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko betekizunei dagokienez.
 - j) Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak **bete beharko dituzte** agindu honetan ezarritako **eskakizun guztiak**. Gainera, taldearen ordezkari bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen, eta aurkeztutako eskaeran adierazi beharko dute kide bakoitzaren partaidetza-ehunekoa.

6. Nola eman dezaket alta edo nola alda ditzaket nire banku-datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarren Erregistroan?

Pertsona edo erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarren Erregistroan erregistratuta egon beharko du, eta alta eman beharko du edo banku-datuak aldatu beharko ditu, baldin eta datu horiek ez badaude aipatutako erregistroan jasota. Horretarako, pertsona edo erakunde eskatzaileak, eskabidea egitean, alta eman beharko du edo, hala badagokio, aurretik gehitutako informazioa aldatu beharko du **telematikoki**, https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml helbidean jasotako jarraibideen arabera.

Nolanahi ere, Hirugarrenen Erregistroko datuen alta edo aldaketa **eskatzaileak berak edo haren ordezkari batek egin beharko du, bitarteko elektronikoaren bidez**, baldin eta ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/representantes>) eskuragarri dagoen ahalordeen erregistro elektronikoan alta emanda badago.



7. Nola kontsulta ditzaket EJSN eta EJZ kodeak?

Jardueraren EJSN kodea KKK baten Lan Bizitzaren Txostenean edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko (LAAB) altan agertzen da.

EJZren kodea jarduerari zerga horretan alta emateko deklarazioan sartzen da (840 inprimakia).

8. Eska al dezake laguntza EAeko udalerrri batean ostalaritzako edo gaueko aisialdiko establezimendu bat duen langile autonomo batek bere bizilekua EAetik kanpoko udalerrri batean badago?

Ez. Ostalaritzako edo gaueko aisialdiko establezimendu bat EAEn duen langile autonomo batek, bizilekua Euskaditik kanpo badu, ez du betetzen zerga-egoitza EAEn izateko baldintza; izan ere, autonomoen kasuan, zerga-egoitza bat dator ohiko etxebizitzarekin.

9. Laguntza itzuli beharrekoa da?

Ez. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza da.

10. Establezimendu bat baino gehiago baditut, eska al dezaket laguntza bat establezimendu bakoitzeko?

Bai, baina eskabide bat aurkeztu beharko duzu establezimendu bakoitzeko laguntza eskatzeko.

Edonola ere, langile bakoitzak establezimendu bakarrean egon ahalko du atxikita.

11. Zer hartzen da kontuan laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko?

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa honako hauen arabera ezartzen da:

- Establezimendu-mota (ikus [2. galdera](#))
- Establezimendu horretako langileen kopurua ([ikus hurrengo galdera](#)).

12. Zer informazio hartuko da kontuan langileen kopurua kalkulatzeko?

Langilen kopurua kalkulatzeko, honako txosten hauek hartuko dira kontuan, bi bloketan multzokatuta:

1. BLOKEA: = Soldatapeko langile-kopurua + autonomo eskatzailea + autonomo ez-eskatzaileen kopurua

- Gizarte Segurantzak emandako 2021eko abenduaren 1eko kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena (soldatapekoentzat).
- Autonomoen Araubide Bereziko alta (autonomo eskatzaileentzat) 2021eko abenduaren 1ean.



- Langile autonomoaren (autonomo laguntzailea barne) eta erakunde eskatzailearen (autonomo ez-eskatzaileentzat) artean 2021eko abenduaren 1ean dagoen lan-harremana egiaztatzen duen dokumentua.

2. BLOKEA: = 2021eko azken hiruhilekoko batez besteko plantillaren emaitza

- Alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2021eko azken hiruhilekoari dagokiona, Gizarte Segurantzak emana.

13. Nola zenbatzen da langileen kopurua?

Aurreko galderaren txosten-bloke bakoitzaren emaitzari ehuneko bat eman zaio, establezimendua zein [Taldetakoa](#) den kontuan hartuta, eta ehuneko horretan oinarrituta zenbatzen da langileen kopurua:

Establezimendu mota	1. blokearen %	2. blokearen %	Langileen zenbaketa
II taldea	% 50	% 50	(1. blokearen emaitza x 0,50) + (2. blokearen emaitza x 0,50)
III taldea	% 60	% 40	(1. blokearen emaitza x 0,60) + (2. blokearen emaitza x 0,40)
IV. taldea	% 80	% 20	(1. blokearen emaitza x 0,80) + (2. blokearen emaitza x 0,20)

Formula hori aplikatuz ateratzen den zenbakiak dagokion laguntzaren zenbatekoa adieraziko digu. [Ikus 17. galderako zenbatekoen taula.](#)

14. Ateratzen den zenbakiak dezimalak baditu?

Lortzen den emaitzari biribiltzeko formula normalizatua aplikatuko zaio zenbaki osoak izan arte.

15. Langileak zenbatzean, zer egoera hartzen dira kontuan?

Kasu guztietan, langile guztien zenbaketan sartuko dira erakunde eskatzailearekin lan-harremana edo -lotura (eskatutako datan egiaztatua) duten autonomoak, autonomo laguntzaileak barne), bai eta jardunean ari diren, enplegu-erregulazioko espediente-egoeran dauden, lan-harremana etenda daukaten eta jarduera utzita dauden soldatapekoak ere.

Ondorio horietarako, kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzaren txostenak establezimendu horretako langileen altetan eta bajetan izandako mugimenduak jasoko ditu.



16. Eta autonomook soilik lan egiten badugu, laguntza hori ere badagokit?

Bai. Establezimenduko plantilla langile autonomoek soilik osatzen badute, eskaeran langile autonomo guztien —autonomo laguntzaileak barne— eta erakunde eskatzailearen artean 2021eko abenduaren 1ean zegoen lan-harremana egiaztatu beharko da.

17. Zer kopuru jaso dezaket?

Hurrengo koadroan adierazten denaren arabera, jaso beharreko zenbatekoa erabakitzen du, alde batetik, establezimendu motak eta, bestetik, establezimendu horretako langileen zenbaketak ematen digun emaitzak:

Establezimendu mota	Emaitza langileak	Laguntzaren zenbatekoa.
II. TALDEA	1 edo 2	2.000 €
	3	2.300 €
	4	2.400 €
	5 edo 6	2.500 €
	7	2.600 €
	8	2.700 €
	9	2.800 €
	10	2.900 €
	11 eta 20 bitartean	3.200 €
	21 eta 30 bitartean	4.500 €
	31 baino gehiago	6.000 €
III. TALDEA	1 eta 4 bitartean	6.000 €
	5 eta 10 bitartean	10.000 €
	11 eta 20 bitartean	20.000 €
	21 baino gehiago	25.000 €
IV. taldea	1 eta 4 bitartean	10.000 €
	5 eta 10 bitartean	30.000 €
	11 eta 20 bitartean	50.000 €
	21 baino gehiago	70.000 €



18. Zein da laguntzen guztizko zenbatekoa?

Laguntza hauetarako, 22.266.000 euro erabiliko dira.

Aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, utzi egingo zaio laguntza berriak emateari, eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira.

Hasierako zuzkidura handitzen bada, berriro ekingo zaio laguntzak emateari, eta hasierako zuzkidura agortzeagatik laguntzarik gabe geratu direnek izango dute lehentasuna, eta dagokien ordenaren eta prozedura beraren arabera ebatziko dira.

19. Zer ordenatan emango dira laguntzak?

Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzako titularrak hurrenkeran ebatziko ditu eskabideak, deialdian eskatu bezala osorik eta zuzendu beharrik gabe formalizatuta egoitza elektronikoa aurkeztu den eguna eta ordua erreferentziazat hartuta.

Zuzenketa egin behar bada, eskabidea balio osoz osatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziazat.

Eskabideak onuradun izateko eskatzen diren baldintza subjektiboak eta objektiboak betetzen direla kontuan hartuta onartuko dira, eta ez da beharrezkoa izango eskabideen arteko alderaketarik egitea, ezta eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzea ere.

20. Zein da laguntza eskatzeko epea?

Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 8an hasiko da, 09: 00etan, eta otsailaren 28an amaituko da, 23: 59an.

21. Nola aurkeztu behar dira eskabideak?

Prozedura elektronikoa izango da soilik. Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora jo behar da: <https://www.euskadi.eus/servicios/1211401>

Eskabidea behar bezala osatuta ez badago edo eskabidearekin batera ez badira nahitaezkoak diren agiriak aurkezten, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo eskatzen diren agiriak aurkezteko; eta adieraziko zaio ezen, garaiz eta egoki egiten ez badu, eskabideari uko egin diola ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Pertsona edo erakunde interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa «Nire karpeta» aplikazioaren bitartez bakarrik (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>) eskuratuko du espedientea, aurkeztuko du dokumentazioa eta egingo ditu zuzenketak; era berean, aplikazio horren bitartez egingo ditu jakinarazpenak eta prozedura honetako gainerako izapideak ere, hirugarrenaren datuei alta emateko edo aldatzeko izapidea izan ezik, [6. galderan](#) adierazi bezala.

Bere izenean edo ordezkari baten bidez jardun ahal izango du. Azken kasu horretan, honako hauek erabiliko ditu:



– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dagoena (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>), edo

– «Borondatezko legezko ordezkari-tza egileste-ko inprimaki normalizatu-a» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatu-a; eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona juridikoek, gainera, erantsi beharko dute ordezkari-tza-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkari-tza-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu.

22. Nola jakingo dut laguntza eman didaten ala ez?

Laguntza-eskabide bakoitzak prozedura bat bideratuko du, eta banakako ebazpen batekin amaituko da.

Ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da, egintza eman eta 10 eguneko epean, jakinarazpena egoitza elektronikoa eskuragarri jarri.

Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak abisuak bidaliko dizkie pertsona edo erakunde interesdunei, egindako jakinarazpena egoitza elektronikoa eskuragarri dutela jakinarazteko. Abisu horiek helarazteko, SMS mezuak edo posta elektronikoko mezuak bidaliko ditu eskaera-orrian adierazitako telefono mugikorretara eta posta elektronikoko kontuetara. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondorerik izango, eta abisu hori egin ez izanak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

Jakinarazpena egindakotzat joko da interesduna edo haren ordezkaria jakinarazpenaren edukira sartzen denean. Jakinarazpena ez onartutzat joko da jakinarazpena eskuragarri jarri zenetik hamar egun natural igaro bada eta interesduna ez bada edukian sartu; kasu horretan, izapidea egindakotzat hartuko da eta prozedurarekin jarraituko da, salbu eta ofizioz edo interesdunak eskatuta, sartzeko ezintasun teknikoa edo benetako ezintasuna izan dela egiaztatzen bada.

Prozeduraren gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eskabidea oso-osorik aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berariazko ebazpena emateko duen betebeharra.

23. Eskaeraz gain, beste agiririk aurkeztu behar al dut? Zein?

Bai. Eskabidea eta gainerako inprimakiak oso-osorik bete behar dira. Gainera, pertsona edo erakunde eskatzaile motaren arabera, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Norbere edo besteren konturako langileak.

- Jarduera- eta/edo irekitze-baimena.
- “Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena”, 2021eko abenduaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.



- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2021eko azken hiruhilekoari dagokiona.
- Laguntzaren eskatzaileaz gain plantillan langile autonomorik balego (autonomo laguntzailea barne), laguntza eskatzen den gaueko ostalaritzako edo aisialdiko establezimenduetarekin 2021eko abenduaren 1ean duten lan-lotura egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.
- Ordezkarri baten bidez egiten bada, eta ordezkarri hori ez badago erregistratuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>, «Borondatezko legezko ordezkaritza egilesteko inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>)) aurkeztu beharko da, behar bezala formalizatuta.

Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak

- Jarduera- eta/edo irekitze-baimena.
- “Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena”, 2021eko abenduaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.
- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2021eko azken hiruhilekoari dagokiona.
- Laguntzaren eskatzaileaz gain plantillan langile autonomorik balego (autonomo laguntzailea barne), laguntza eskatzen den gaueko ostalaritzako edo aisialdiko establezimenduetarekin 2021eko abenduaren 1ean duten lan-lotura egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.
- Elkartearen ordezkarria izendatu dela egiaztatzen duen dokumentua. Ordezkarri horrek onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango ditu.
- Ordezkarri baten bidez egiten bada, eta ordezkarri hori ez badago erregistratuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>, «borondatezko legezko ordezkaritza egilesteko inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>)) aurkeztu beharko da, behar bezala formalizatuta.

Enpresak:

- Jarduera- eta/edo irekitze-baimena.
- “Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena”, 2021eko abenduaren 1ean zegoen plantilla osoa egiaztatzen duena.
- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2021eko azken hiruhilekoari dagokiona.



- Ordezkarari baten bidez egiten bada, eta ordezkarari hori ez badago erregistratuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan, (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>, «borondatezko legezko ordezkaritza egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>)) aurkeztu beharko da, behar bezala formalizatuta.
- Ordezkaritza-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkaritza-emailearen legezko ordezkarari gisa legitimatzen duen legezko zainahi dokumentu.

24. Diru-laguntza ematen badidate, ba al dut obligatorik?

Bai. Pertsona edo erakunde onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo 6 hilabetean, gutxienez, honako baldintza hauek betetzen jarraitzea:
 - a) Egoitza soziala eta fiskala eta establezimendua bera EAEn egotea.
 - b) Establezimendu motari eta egindako jarduerari buruzko ondorengo hiru baldintza hauek aldi berean betetzea: ixteko ordutegiaren araberrako taldeetako bati dagokion jardueraren eta/edo irekitze-lizentzia edukitzea, diruz lagundu daitezkeen EJSNetako batean sartuta egotea eta EJZren epigrafe baliokidean alta emanda egotea.
 - c) Gaueko ostalaritzako eta aisialdiko establezimendu bateko jardueraren titular izatea.
 - d) Diruz lagundutako jardueraren aritzea.
 - e) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
2. Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza emateko ebazpena onuradunari jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean hark ez badio uko egiten dirulaguntzari berariaz eta idatziz, onartu egin duela ulertuko da.
3. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunetan dihardutela eskatzen dioten informazioa.
4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea, eta bere gain hartzea 4/2005 Legeak Administrazioaren laguntzak kontratatzen, adosten edo jasotzen dituzten erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak.

25. Nire udalerririk beste laguntza bat atera du. Eska dezaket diru-laguntza hori ematen badidate?

Bai. Bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuetatik edo erakunde pribatuetatik jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.